

KOSTUEN EGITURA

Kontuan izanda enpresaren munduan berriak garela eta ez ditugula baliabide ekonomiko ugari, kostuak ahalik eta gehien minimizatzen saiatu gara. Politika horren adibide da ez dugula egoitza bat alokatuko eta taldeko partaide baten etxea izango dugula egoitza gisa. Gure proiektuak izango dituen kostu finkoak kontratatuko ditugun langileen soldatak izango dira. Langile bakoitzak 1100€ kobratuko ditu hilean, eta kontuan izanik 4 langile izango ditugula, kostu totala 4400€-koa izango da. Halaber, webgunearen hostinga ordaindu beharko dugu. Oraingoan, ez dugu bestelako kostu finkorik aurreikusten. Kostu aldakorrei dagokionez, ez dugunez ondasun materialik ekoizten, ez ditugu izango.